



PRENTSA KOMUNIKATUA

Atsekabe-une latz hauetan Done Jakue Compostelakoan gertatutako tren-istripuagatik, Euskadiko Udalen Elkarteak hildako guztien senide eta lagunei elkartasun eta hurbiltasuna helarazi nahi dizkie. Era berean, istripuan zauritutako eta kaltetutako guztiei laster osatzea ere opa die.

EUDELeK, Euskadiko udalen izenean, biktimengatik dolu eta elkartasunak bultzatutako ekimen guztien parte izan nahi du, eta batez ere, Galiziako herriari gertaera tragiko eta samingarri honen aurrean babes eta indar guztiak eman.

Bilbon, 2013ko uztailaren 25ean